

GALDAKAOKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA OROKORRA

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA.- APLIKAZIO EREMUA

1. Artikulua.- Xedea

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, ordenantza honen xedea da Galdakaoko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzea, udalaren interes publikoa kontuan hartzen duten ekimen pribatu guztiak sustatuta.

2. Artikulua.- Diru-laguntzen araubide juridikoa

Galdakaoko Udalak eta bere erakunde autonomoek emandako diru-laguntzak arautuko dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Ordenantza Orokor honen eta diru-laguntzen modalitateak arautzen dituzten oinarri berezien arabera.

3. Artikulua.- Diru-laguntzaren kontzeptua

Galdakaoko Udalak edo haren erakunde autonomoek pertsona publikoen edo pribatuen alde emandako diruzko baliatze orori deritzo diru-laguntza, betiere honako eskakizun hauek betetzen badira:

- a) Diru-laguntzak onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- b) Diru-laguntzaren emakida helburu jakin bati, proiektu baten burutzapenari, jarduera bat egiteari, jarrera berezi bat hartzeari edo egoera bati lotuta egotea, horiek guztiak eginda edo egitekoak direnak; ezarritako betebeharrak materialak eta formalak bete beharko ditu onuradunak.
- c) Diruz lagundutako proiektuaren, ekintzaren, jarreraren edo egoeraren xedea herri edo gizarte onurako jarduera bat edo herri helburu bat sustatzea izatea.

Udalerriaren irudia kanpoan hedatzeko onuragarritzat hartzen diren diru-laguntzak direnean, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

- a) Galdakaoren irudia eta izena jendaurrean modu nabarmenean agertzea.
- b) Jarduketa horietan ahalik eta gizarte oihartzunik handiena bilatzea.
- c) Jarduketa horien zioen eta helburuen artean, zehatz azaltzea Galdakao kanpora begira sustatu nahi izatea.

Ordenantza honen aplikazio eremuak ez ditu barruan hartuko honako diru-ekarpen hauek:

- a) Udalak haren erakunde autonomoei edo udalaren partaidetzako herri sozietateei erakunde bakoitzaren jarduera osoa finantzatzeko egindako ekarpenak, aurrekontuen araudia aplikatzeari kalterik egin gabe.

- b) EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearantzat edo Tokiko Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako udalerrietako edozein elkarterentzat diren kuotak.
- c) Udal talde politikoei egindako ekarpenak, aurrekontuei eta kontabilitateari buruzko araudiaren aplikazioari kalterik egin gabe.
- d) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako gainerako guztiak.

II. KAPITULUA- UDALAK EDO HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK

4. Artikulua.- Aurrekontu aurreikuspena

Diru-laguntzaren emakida baimentzeko udalak edo haren erakunde autonomoek hartutako erabaki orok, aldeztatik, aurrekontuko zainpeketa eta kreditua atxikitzeko dokumentua izan behar ditu eta fiskalizazioaren izapidea bete beharko du, Aurrekontua Betearazteko Udal Arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

Eskubide osoz deusezak izango dira diru-laguntzak emateko erabakiak, aldeztatik aurrekontuan zainpeketa nahikoa eta egokia eduki ezik. Deialdien xede diren diru-laguntzak nahiz zuzenean ematekoak behar bezala zainpetuta egongo dira aurrekontu egokietan.

5. Artikulua.- Abiaburu orokorrak

Diru-laguntza oro herri helburu edo gizarte onura baterako emango da, toki administrazioari badagokio helburu horiek sustatzea. Diru-laguntzak emateko erabakiak eskubide osoz deusezak izango dira eskuzabaltasun hutsez jokatzeko hartzen direnean.

Diru-laguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, eta edozein unetan ezeztatu edo murriztu daitezke, legean edo arauetan ezarritakoa izan ezik. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira edo, nolana ere, arauetan baimendutako kasuetatik kanpora lortzen badira beste ekarpen batzuk, diru-laguntza emateko ebazpena aldaraz daiteke.

Ez zaie diru-laguntzarik emango merkatuko lehiakortasun librearen kolusio jarduketak edo jarduketa murrizgarriak dakartzaten ekonomi jardueri, lehiakortasunaren alde aplikatu daitezkeen araudian xedatuta dagoenarekin bat etorriz.

Diru-laguntzen zenbatekoa ez da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera.

Diru-laguntzak honako irizpide hauen arabera kudeatuko dira:

- a) Publizitatea, merezimendua, gardentasuna, lehiaketa librea, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- b) Eraginkorra izatea udalak edo haren erakunde autonomoek finkatutako helburuak betetzean.
- c) Eraginkorra izatea baliabide publikoak baliatzean eta erabiltzean.

Diru-laguntza jasotzen dutenek, diru-laguntza jaso baino lehen, lehenago jasotako diru-laguntzen egiaztapena kreditatu beharko dute, baita udalarekin zerga-betebeharrak egunean dituztela ere; gainera, jasotako funtsen aplikazioa egiaztatu beharko dute gero.

Baldin eta jasotako funtsen aplikazioari buruzko egiaztapena aurkeztu beharra betetzen ez bada, edo diru-laguntza eman den helbururako ez beste xede baterako erabiltzen bada, edo onuradunei ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, onuradunek itzuli egin beharko dituzte jasotako kopuruak berandutze-interesak eta guzti, hain zuzen ere diru-laguntza ordaintzen denetik berau itzuli arte, ordenantza honetako V. Tituluan xedatutako prozedurarekin bat etorriz.

6. Artikulua.- Diru-laguntzen plan estrategikoa

Udalak edo haren erakunde autonomoek, diru-laguntzak ezartzea proposatzen dutenean, diru-laguntza ezarriz lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzabideak zehaztu beharko dituzte diru-laguntzen plan estrategikoan, betiere aurrekontuaren egonkortasunaren menpe geldituta.

Plan estrategiko hori aurrekontuak onetsiko direnean egin daiteke eta aurrekontuen dokumentazioan sar daiteke. Nolanahi ere, diru-laguntzak onesteko edo aldarazteko, alde zuzenetik edo aldi berean plan estrategikoa onetsi edo aldarazi beharko da.

7. Artikulua.- Diru-laguntzak emateko betekizunak

Diru-laguntzak eman baino lehen, diru-laguntzen emakidarako oinarriak ezarriko dituzten arauak onetsi beharko dira, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta Ordenantza Orokor honetan ezarritakoaren arabera.

Diru-laguntza mota bakoitza arautzen duten oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren Iragarri-oholean argitaratuko dira.

Gehigarri moduan, diru-laguntza emateko honako eskakizun hauek bete behar dira:

- a) Administrazio-erakunde emailea eskuduna izatea.
- b) Diru-laguntzaren emakidak dakartzan ekonomi arloko betebeharrerai aurre egiteko nahikoa kreditu eta kreditu egokia izatea, 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- c) Diru-laguntza emateko prozeduraren izapidea Ordenantza honekin eta aplikatzekoak diren gainerako arauekin bat etorriz egingo da.
- d) Ekonomia arloko administrazio egintzak aurretik fiskalizatzea.
- e) Erakunde eskudunak gastua onestea.

II. TITULUA- ONURADUNAK ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

8. Artikulua.- Onuradunak

Diru-laguntzen onuraduna izango da jarduera egin eta diru-laguntza jasotzeko zioak oinarritzen dituen edo diru-laguntzaren emakida legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona.

Oinarrietan hala badakar, hauek ere izan ahalko dira onuradun:

- a) Onuraduna pertsona juridikoa denean, harekin kidetuta dauden kideak, baldin eta haren izenean diru-laguntza emateko oinarri gisa hartutako jarduera guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen badute.
- b) Pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte publikoak edo pribatuak, ondasunen elkarteak, jabeen elkarteak edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, proiektuak, jarduerak edo jarrerak gauzatu ditzakeen edozein ekonomi edo

ondare unitate bereizi, edo diru-laguntza emateko egoeran dauden pertsona guztiak.

Nortasunik ez duten pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte publikoak edo pribatuak direnean, eskabidean nahiz emateko ebazpenean beren-beregi adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak hartutako betearazteko konpromisoak, bai eta haietariko bakoitzarengatik aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa, haiek ere onuradun izango dira-eta.

Edonola ere, elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko adina eskumen izango dituen. Elkarteak desegingo da 38/2003 Legearen 39 eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro eta gero, ez lehenago.

Onuraduna izateko bete behar diren eskakizunak, horien betebeharrak eta elkarrekin lankidetzak hitzarmenak egitea estatuko oinarriko legedietan edota berau garatzeko erkidegoko legedietan xedatutakoak eraenduko ditu, baita udalak onetsiko dituen oinarrietan ezarritakoak ere.

9. Artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- a) Xedea betetzea, proiektua betearaztea, jarduera egitea edo diru-laguntzaren emakidaren oinarriaren arabera jarrera izatea.
- b) Diru-laguntza eman duen erakundearen edo, hala denean, erakunde laguntzailearen aurrean egiaztatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, baita jarduera egitea eta diru-laguntza emateko edo izateko helburua betetzea ere.
- c) Erakunde emaileak edo, hala denean, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapenen menpe jartzea, baita kontrol-organo eskudunek finantzen egiaztapen eta kontrolerako egin ditzaketen beste jarduketan menpe ere, bai nazio mailakoak, bai erkidego mailakoak; gainera, jarduketa horiek egiteko eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.
- d) Erakunde emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak jaso direla.
Horien guztien berri izan eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- e) Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpena egiaztatu baino lehen, araudian zehazten den eran. Dena dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hamazortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatu ahal izango da.
- f) Kontabilitate liburuak, dilijentzia eginda duten erregistroak eta behar bezalako auditoretza duten gainerako agiriak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken merkataritza eta arloko legediaren arabera, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileetan eskatzen diren berariazko erregistroak eta kontabilitate orriak ere, egiaztapena eta kontrola egiteko ahalmenak egoki betetzen direla bermatzeko.
- g) Jasotako fondoak aplikatu izanaren egiaztapenak gordetzea, agiri elektronikoak barne, horiek egiaztatu eta kontrola baitaitezke.

- h) Zabalkundea emateko legez ezarritako neurriak hartzea diru-laguntza jasotzen duten egitarauen, jardueren, inbertsioen edo edozein motatako jarduketaren finantzaketaren izaera publikoari dagokionez. Bereziki jendaurreko jarduerak direnean, Galdakaoko Udala babeslea dela agertu behar da.
- i) Itzulketaren egiteko arrazoiren bat gertatzen denean, diru-laguntza itzuliko beharko da.

10. Artikulua.- Erakunde laguntzaileak

Erakunde laguntzaileak izango dira, Galdakaoko udalaren edo haren erakunde autonomoen izenean eta kontura jardunda diru-laguntzarekin lotutako ondorio guztietarako, onuradunei funts publikoak eman eta banantzen dizkieten erakundeak, oinarri arautzaileetan hala ezarrita dagoenean, edo bestela diru-laguntzaren kudeaketan laguntza ematen duten erakundeak, jasotako funtsak aurretiaz eman eta banatu gabe. Funts horiek inola ere ez dira hartuko beren ondareko elementutzat.

Erkidegoko araudiaren arabera onuradun izendaturik egonda aurreko paragrafoan zerrendatutako zereginak berariaz aginduta dituztenak ere erakunde laguntzaile izango dira.

Erakunde laguntzaile izan ahalko dira gainontzeko erakunde publikoak, Administrazio publikoek edo eskubide publikoko erakundeek osorik edo zati batean partaidetutako merkataritza-sozietateak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian azaldutako elkarteak, bai eta ezarritako kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen dituzten gainontzeko pertsona juridiko edo pribatuak.

11 Artikulua.- Erakunde laguntzaileen betebeharrak

Hauek dira erakunde laguntzailearen betebeharrak:

- a) Diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan eta erakunde emailearekin sinatutako hitzarmenean ezarritako irizpideen arabera jasotako funtsak onuradunei ematea.
- b) Diru-laguntza emateko eskakizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea, baita jarduera egiten dela eta diru-laguntza ematea edo izatea dakarren helburua betetzen dela ere
- c) Diru-laguntza ematen duen erakundearen aurrean egiaztatzea jasotako funtsak entregatu direla, eta hala badagokio, onuradunek aurkeztutako egiaztagiria entregatzea.
- d) Erakunde emaileak funtsen kudeaketari buruz egin beharreko egiaztapenen mende jartzea, baita kontrol-organo eskudunek finantzen egiaztapen eta kontrolerako egin ditzaketen beste jarduketan mende egotea ere, nazio mailakoak nahiz erkidego mailakoak izan; gainera, jarduketa horiek egiteko eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.

12. Artikulua.- Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko betekizunak

Onuradun edo erakunde laguntzaile izan ahalko dira diru-laguntza emateko egoeran dauden pertsona edo erakundeak, edo oinarri arautzaileetan eta deialdian aurreikusitako inguruabarrak dituztenak.

Ezin izango dira onuradunak edo erakunde laguntzaileak izan ondoko egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak, diru-laguntza motagatik araudian salbuesten direnean izan ezik:

- a) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera zigortuta egon izana epaileak emandako epai irmoaren bidez.
- b) Konkurtsoaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat hartu izana, Konkurtsoan parte hartu izana, epailearen esku-hartzearen menpe egotea edo Konkurtso Legearen arabera ezgaituta egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako ezgaitzearen epealdia amaitu gabe.
- c) Administrazioarekiko edozein kontratu erabaki irmoaz suntsiarazi izana, errunduntzat hartzeko ebazpena dela-eta.
- d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateko administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak bateraezintasuneko kasuren batean egotea, legedi hauetan ezarritakoaren arabera: Nazioko Gobernuak Kideen Bateraezintasunen legedian, Eusko Jaurlaritzak Kideen eta goiko karguen bateraezintasunen legedi autonomikoan, administrazio publikoetako zerbitzuko langileen bateraezintasunari buruzko legedian; edo kargu hautetsia izatea, gai horren inguruko hauteskunderi buruzko legedi orokorrean edo autonomikoan ezarritakoaren arabera.
- e) Zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.
- f) Arauetan paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurralde batean bizi izatea.
- g) Diru-laguntzaren itzulketagatiko betebeharrak egunean ez izatea, arauetan ezarritakoaren arabera.
- h) Ebazpen irmo bidez zigortuta egon izana diru-laguntzak lortzeko aukera galduta, diru-laguntzari buruzko estatuko legedi arautzailearen edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren arabera.

Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko debekurik ez izateari buruzko egiaztapena epailearen aurreko testigantzen, ziurtagiri telematikoen edo datuen eskualdaketen bidez egin ahal izango dute pertsona edo erakundeek, Estatuko Administrazio Orokorrean edo Autonomia Erkidegoetan teknika elektronikoko horien erabilera arautzen duen araudian xedatutakoaren arabera, edo bestela administrazioaren ziurtagiriaren bidez egin daiteke, kasuen arabera. Agintari eskudunak ezin badu agiri hori eman, haren ordezkari agintaritzaren administratibo baten edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpen bat eman ahal izango da.

13. Artikulua.- Lankidetzaren Hitzarmena

Lankidetzaren hitzarmena gauzatuko da laguntza ematen duen administrazio-organismoaren eta erakunde laguntzailearen artean; bertan, azken horrek hartutako baldintza eta betebeharrak arautuko dira, 38/2003 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako betekizunen arabera.

14. Artikulua.- Emandako diru-laguntzen publikitatea

Udalak eta haren erakunde autonomoek emandako diru-laguntzen gaineko publikitatea egingo dute. Horretarako, diru-laguntzen zerrendaren iragarkia iragarki-oholean jarriko da, deialdia, egitaraua eta ezarri zaien aurrekontuko

kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta diru-laguntzaren xedea edo xedeak adierazita.

Halaber, aurreko atalean aipatutako iragarki-oholeko iragarkia jartzea agintzen duen ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Ondorengo kasuetan ez da beharrezkoa diru-laguntzaren iragarkia argitaratzea:

- a) Diru-laguntzek izendun diru-kopurua dutenean udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuetan.
- b) Diru-laguntzaren emakida eta onuradun zehatzaren aldeko kopurua lege lerruna duen arau bat dela bide ezartzen direnean.
- c) Emandako diru-laguntzen zenbatekoak, banan-banan hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean. Kasu horretan, diru-laguntzen onuradunen publizitatea ziurtatuko duten beste prozedura batzuen erabilera aurreikusi beharko da arau arautzaileetan, diru-laguntzaren ezaugarri berezien, zenbatekoaren eta kopuruaren arabera.
- d) Diru-laguntzaren xedea dela-eta onuradunaren datuak argitaratzea pertsona fisikoen ohore, intimitate pertsonal eta familiarraren errespetuaren eta zaintzaren kontra datorrenean, ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa dela bide, betiere eskubide hori araudi arautzailean ezarri bada.

Onuradunek publizitate egokia eman beharko diete egitarauen finantzaketari, jarduerari, inbertsioei edo diru-laguntza jasotzen duen edozein jarduketari, izaera publikoa duten aldetik, arauetan edo emakidari buruzko oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

15. Artikulua.- Diru-laguntzen kudeaketari buruzko informazioa

Udalak edo haren erakunde autonomoek arauetan ezarritakoaren arabera kudeatutako diru-laguntzei buruzko informazioa eman beharko diote Estatuaren edo erkidegoko agintari eskudunen Esku-hartzailletza Nagusiari, estatistikaren eta informazioa ematearen ondorio hutsetarako, estatuko edo erkidegoko datu-basea eratzeko, halako moldez non bete egingo baita Europar Batasunaren eskakizuna: diru-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, metaketa eta diru-laguntzak kontrolatzea eta plangintza, jarraipena eta kontrolleko jarduerak erraztea.

Aurreko atalean ezarritakoa dela bide Estatuaren Esku-hartzailletza Nagusiari utzi behar zaizkion datu pertsonalak emateko, ez da behar izango ukitutako pertsonaren baimenik.

Datuen berri duten agintariak eta funtzionarioak lanbide sekreturik zorrotzena eta osoena gorde beharko dute nahitaez datuoi dagokienez.

III. TITULUA.- DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDAKO ETA KUDEAKETAKO PROZEDURA

I. KAPITULUA.- EMATEKO PROZEDURAK

16. Artikulua.- Emateko prozedurak

1. Diru-laguntzak eta laguntzak emateko prozedura norgehiagoka araubidearen bidez tramitatuko da. Norgehiagokatzat hartuko da diru-laguntzak edo laguntzak

emateko aurkeztutako eskabideak alderatuta egingo den prozedura, oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik ezarritako irizpideen arabera eskabideen arteko balorazio lehentasunak ezartzeko, eta deialdian kreditu erabilgarriaren barnean finkatutako muga izanda, aipatutako irizpideak aplikatuta baloraziorik handiena izan dutenei esleitzeko.

Kasu horretan, Herri Administrazioek beren burua antolatzeko duten gaitasunari kalterik egin gabe, emateko proposamena kide anitzeko organo batek egingo dio erakunde emaileari, organo instrukzio-egilearen bitartez, Titulu honetako II. Kapituluaren aurreikusitakoaren arabera. Kide anitzeko organoaren osaera oinarri arautzaile egokietan ezarritakoa izango da.

Ezin izango da deialdian finkatutakoa baino kopuru handiagoko diru-laguntzarik eman.

2. Salbuespenez, oinarri arautzaileetan hala ezartzen bada, erakunde eskudunak diru-laguntzaren gehieneko guztizko zenbatekoa hainbanatuko du diru-laguntzaren onuradunen artean.

Zuzenean eman ahal izango dira diru-laguntza hauek, betiere behar bezalako zioak ematen badira:

- a) Udalaren edo haren erakunde autonomoen aurrekontu nagusietan izen eta guzti ezarritako diru-laguntzak, hala denean bertan finkatutakoaren arabera edo hitzarmenetan eta diru-laguntzen araudian xedatutakoaren arabera.
- b) Administrazioari lege lerruneko arauak ezarritako diru-laguntzen emakida edo zenbatekoa dutenak, araudiaren beraren arabera aplikatu beharreko emakida prozedura jarraituko duten diru-laguntzak hain zuzen.
- c) Salbuespenez, onura publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko helburua betetzeko izatea egiaztatzen diren diru-laguntzak, edo behar bezala egiaztatuak izanik deialdi publikoa egiteko zailtasunak daudenean.

Ebazpen edo Erabakian ezarriko dira diru-laguntza horiei aplikatu ahal zaizkien mota guztietako baldintzak.

II. KAPITULUA.- LEHIAKETAKO ARAUBIDEAREN ARABERA EMATEKO PROZEDURA

I. ATALA.- DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

17. Artikulua.- Edukia eta tramitazioa

Diru-laguntza eman baino lehen, espedientea egin beharko da, beti ofizioz hasiko dena eta hurrengo ataletan ezarritakoarekin bat etorritu izapidetuko dena.

Diru-laguntza emateko egokitasuna eta aukera eta diru-laguntza legekoa dela egiaztatzen dituen txosten teknikoa eman beharko du aurrekontuko egitarauaren funtzionario arduradunak, honako hauen aurreikuspena eginda diru-laguntzen egitarau estrategikoan: diru-laguntzak emateko aurrekontuko kredituak eta diru-laguntzaren helburua, baldintzak eta xedea; oinarri buruzko proiektua erantsiko dio txostenari.

Diru-laguntzak emateko oinarrietan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira:

- a) Diru-laguntzaren xedea eta helburua.
- b) Onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete beharko dituzten betekizunak.
- c) Eskabideak aurkezteko era eta epea.

- d) 38/2003 Legearen 12. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako pertsona juridikoek bete beharko dituzten kaudimen eta eraginkortasun baldintzak.
- e) Diru-laguntza emateko prozedura.
- f) Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala denean, irizpideon haztapena.
- g) Diru-laguntzaren banakako kopurua edo kopurua finkatzeko irizpideak.
- h) Diru-laguntza emateko prozedura antolatu, bideratu, proposatu eta ebazteko organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea, bai eta administrazio isiltasunaren ondorioak.
- i) Diru-laguntzen justifikazioa modu egokian eta zuzen egingo dela bermatzeko kontabilitate-liburu eta erregistro berezien zehaztapena, hala badagokio.
- j) Onuradunak edo erakunde laguntzaileak diru-laguntzaren helburua bete izana eta jasotako funtsak aplikatu izana egiaztatzeke modua eta epea.
- k) Erakunde emailearen aldeko berme-neurriak, kasuan kasu eratu beharrekotzat jotzen badira. Halaber, neurri horiek eratzeko bideak eta ezeztatzeke prozedura.
- l) Ordainketa aurreratua eta konturako ordainketak egiteko aukera, bai eta onuradunek eman beharreko bermeen araubidea, hala badagokio.
- m) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldarazi ahal duten inguruabarrak.
- n) Helburu berbererako Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekiko bateragarritasun edo bateraezintasuna.
- o) Diru-laguntzak emateko ezarritako baldintzak bete ezean, ez betetze hori mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek aplikatu ahal izango dira onuradunak azkenean jaso behar duen kopurua edo, hala badagokio, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko. irizpide horiek proportzionaltasun printzipioaren arabera izango dira.
- a) Diruz lagundutako jardueraren burutzapen partziala beste batzuekin azpikontratatzea onartuta dagoen ala ez, 29. artikuluan jarritako muga izanik.

Kredituaren atxikipenari buruzko dokumentua erantsiko zaio espedienteari.

Arloko Ordezkaritzak proposamena egingo du.

Arloko Ordezkaritzaren proposamena dakarren espedientea igorriko zaio Informazio Batzorde eskudunari ebazpena eman dezan, gaia dela-eta; izan ere, ebazpena aginduzkoa da baina ez loteslea.

Espedientea udalaren Barne Kontroleko Organoak fiskalizazio izapidea egiteko igorriko da, berau onesteko proposamena eta guzti.

18. Artikulua.- Oinarri arautzaileen onespena.

Korporazioaren Osoko Bilkurari dagokio, Galdakaoko Udalak sustatzen dituen subentzioak emateko deialdia arautzen duten oinarriak onestea eta aldatzea.

19. Artikulua.- Publizitatea.

Oinarriak, behin onetsi ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Era berean, oinarrien testu osoa, emakidatzen duen erakundearen iragarki-taulan jarriko da ikusgai, onetsi denetik hasita eskabideak aurkezteko azken egunera arte.

II. ATALA.- HASIERA

20. Artikulua.- Deialdia

Diru-laguntzak emateko prozedura beti ofizioz hasiko da, Alkatetzak onetsitako deialdiaren bidez. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren iragarki-oholean argitaratuko den deialdi horrek garatuko du deitutako diru-laguntzak emateko prozedura, atal honetan ezarritakoaren eta 30/1992 Legearen abiaburuen arabera. Deialdiaren edukia hau izan beharko da:

- a) Oinarri arautzaileak zein xedapenek ezartzen dituen adierazi beharko da, kasuan kasu, eta hori zein aldizkari ofizialetan argitaratuta dagoen ere bai, baldin eta berezitasuna kontuan hartuta oinarri horiek deialdian bertan sartuta ez badaude.
- b) Diru-laguntzak emateko aurrekontuko kredituak, eta deitutako diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa, eskuragarri dauden kredituen barruan, edo bestela, diru-laguntzen kopuru zenbatetsia.
- c) Diru-laguntzaren emakidaren helburua, baldintzak eta xedea.
- d) Diru-laguntza norgehiagoka araubidearen bitartez emango dela adieraziko da.
- e) Diru-laguntza eskatzeko betekizunak, eta horiek egiaztatze modua.
- f) Prozedura bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoen adierazpena.
- g) Eskabideak aurkezteko epea.
- h) Ebazteko eta jakinarazteko epea.
- i) Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentu eta informazioak.
- j) Eskabideak berriro egiteko aukera, hala badagokio, 38/2003 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- k) Ebazpenak administrazio bideari bukaera ematen dion adierazi beharko da; administrazio bideari bukaera eman ezean, gorako errekurtsioa zein organotan aurkeztu behar den adierazi beharko da.
- l) Eskabideak baloratzeko irizpideak.
- m) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, 30/1992 Legearen 59. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.
- n) Interesdunek deialdiaren oinarriak jasotzeko udal bulegoen kokalekua.

III. ATALA.- ESKABIDEEN AURKEZPENA

21. Artikulua.- Eskabideen aurkezpena: modua, lekua eta epeak

Eskabidea, udalbatzako buruari zuzenduta, dagokion deialdian adierazitako epean aurkeztuko da Erakundearen erregistro Orokorrean, edo 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetatik. Horretarako, ondore horretarako ezarritako inprimaki normalizatua erabiliko da, oinarri arautzaile berezietan hala ezarrita dagoenean. Berriazko eperik jarri ezean, 15 laneguneko epea izango da,

iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Arauan edo deialdian zehaztutako dokumentu eta informazioekin batera aurkeztu beharko dira interesdunen eskabideak. Eskatutako dokumentuok Administrazio jarduleak aurretik badauzka, eskatzaileak 30/1992 Legearen 35.f) artikuluan ezarrita dagoenari heldu ahal izango dio baldin eta zein erakunde edo bulegotan eta zein egunetan aurkeztu edo, kasuan kasu, eman diren adierazten bada, eta dagozkien prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Dokumentua ezin bada eskuratu, organo eskudunak eskatzaileari eskatu ahal dio beste bide batzuetatik aurkez dezala, edo bestela dokumentuan aipatzen den betekizuna beste bide batzuetatik egiazta dezala, ebazpen-proposamena egin baino lehen.

Eskabideak eta dokumentazio osagarria telematikaren bidez aurkezteko, administrazio prozedura erkideari buruzko araudian ezarritakoaren arabera jokatu beharko da.

Eskabideari erantsi beharreko dokumentazioari buruz oinarrietan aurreikuspenik egin ezik, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Interesdunaren NANaren edo IFZren fotokopia eta, hala denean, haren legezko ordezkariari dagokiona.
- b) Interesdunaren jarduerak irabazi-asmorik ez izateari buruzko zinpeko adierazpena.
- c) Erakundearen edo elkartearen estatutuak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak badira.
- d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen egiaztagiria.
- e) Aurreko ekitaldian egindako jardueri buruzko memoria, hala denean.
- f) Diru-laguntzaren helburua, proiektua eta jarduera betetzeko edo diruz lagundutako jarrera hartzeko egiten diren ekintzei buruzko memoria, honako hauek adierazita: sarreraren eta gastuen aurrekontua, jarduera egiteko epeak eta datak, aurreikusitako helburuen azalpena, metodologia, nori zuzenduta dagoen eta zein ondorio lortu nahi diren.
- g) Beste administrazio, erakunde edo organo publiko edo pribatuengandik jasotako edo eskatutako diru-laguntzei buruzko zinpeko adierazpena.
- h) Diru-laguntza emateko alegatutako merezimenduei buruzko egiaztagiriak.

Agiri jakin batzuen ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena izateko aurreikuspena ezar daiteke oinarrietan. Hala denean, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen, adierazpen horrek dakartzan datuak egiaztatzen dituen dokumentazioa gehienez 15 eguneko epean aurkezteko eskatu beharko da.

22. Artikulua.- Eskabideen akatsak zuzentzea

Eskabideak ez baditu betetzen deialdian eta oinarrietan eskatutako betekizunak, eskabidea zuzentzeko eskatuko zaio interesdunari gehienez 10 eguneko epean, eta gainera honako honetaz ohartaraziko da: hala egin ezik, eskabideari uko egin diola ulertuko da, administrazio prozedura erkideari buruzko legedian ezarritakoaren arabera.

IV. ATALA.- PROZEDURA BIDERATZEA

23. Artikulua.- Emateko prozedura bideratzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, diru-laguntza kudeatzen duen Sailak administrazioaren bidez egingo ditu datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen jarduera guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena.

Honako hauek burutu beharko dira bideratzeko jardueretan:

- a) Diru-laguntzak emateko prozeduraren barruan sortzen diren gorabehera eta erreklamazio guztiak ebatzi.
- b) Ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen edo diru-laguntza arautzen duten arauak eskatzen dituzten txosten guztiak eskatzea. Eskabidean, hala badagokio, nahitaezko txosten horien izaera erabakigarria adieraziko da. 10 eguneko epea egongo da txostena emateko. Hala ere, salbuespena izango da organo instrukzio-egileak, eskatutako txostenaren edo prozeduraren beraren ezaugarriak kontuan hartuta, arinago edo geroago ematea eskatzen duenean. Hala ere, epe hori ezin izango da bi hilabete baino gehiagokoa izan.

Adierazitako epea igaro bada eta legez edo beren-beregi nahitaezko eta erabakigarri edo, hala badagokio, lotesle gisa kalifikatu den txostena eman ez bada, eten egin ahal izango da hurrengo tramiteen epea.

- c) Egindako eskabide edo eskarien ebaluazioa, diru-laguntza arautzeko oinarrian edo, hala badagokio, deialdian ezarritako irizpide, modu eta balorazio lehentasunen arabera.

Diru-laguntza arautzen duen arauak aurre-ebaluazio fasea ezartzea ere aurreikus lezake. Bertan, diru-laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatuko da.

Eskabideak ebaluatu eta gero, diru-laguntza kudeatzen duen Sailak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko. Oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera eraturako kide anitzeko organoak, espediente eta Sailaren txostena ikusita, emateko proposamena luzatuko dio ebazteko eskuduna den organoari; halaber, diru-laguntzen onuradunak eta horien zenbatekoa ere adieraziko ditu.

Oinarrietan bestelakorik adierazi ezik, gaiaren izaera dela-eta Informazio Batzorde eskuduneko kide guztiek osatuko dute kide anitzeko organo hori, eta haren Idazkariak kide anitzeko organoaren idazkari gisa jardungo du.

Kide anitzeko organoaren aktan agertuko den ebazpen-proposamenean zioak emango dira, eta hautagai bakoitzaren berariazko merezimenduak izango ditu, oinarrietan ezarritakoarekin bat etorrita.

Ez da beharrezkoa izango entzunaldi izapiderik egitea interesdunek eman dituzten alegazioetan eta frogetan edo prozeduran kontuan hartzen ez diren bestelako gertaeren kasuan.

Interesdunek aipatutako alegazioak aztertutakoan, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da; proposamen horretan hau adierazi beharko da:

1. Diru-laguntza emateko proposatu den eskatzailea, edo eskatzaileen zerrenda.
2. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

3. Ebaluazioaren nahiz berori egiteko balorazio-irizpideen zehaztapena.

Ebazpen-proposamenek ez dute sortzen eskubiderik proposatutako onuradunarentzat, Administrazioari dagokionez, emateko ebazpena jakinarazten ez zaion bitartean.

V. ATALA.- EBAZPENA

24. Artikulua.- Ebazpena

Udala izango da erabakia emateko organo eskuduna, deialdiaren oinarrietan kontrakorik ezartzen ez bada, betiere udalaren organo horrek ordezkaritza izateko duen ahalmenari kalterik egin gabe.

Ebazpena arrazoitu egingo da diru-laguntza arautzen duten oinarriek xedatzen dutenaren arabera; edonola ere, prozeduran egiaztatuta geratu behako dira ematen den ebazpenaren oinarriak.

Ebazpena kide anitzeko organoak emandako proposamenari lotuko zaio, kasu batean izan ezik, Alkatetzak, prozeduran arau-haustea gertatu dela ikusita, ebazpen arrazoitua ematen duenean. Arau-haustea gertatzen denean, prozedura arau-haustea edo arau-hauste larri nabaria egin zeneko unera atzera egiteko aginduko du; kasu horretan, zuzenbideari lotuta egongo den eta egokitzat hartuko duen ebazpena emango du.

Ebazpen horretan, diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda agertuko da, diru-laguntzaren kopurua eta onuradunen betebeharrak adierazita, baita, hala denean, atzera botatako gainerako eskabideak ere.

Prozedurari buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, baldin eta lege lerruna duen edo Europar Batasuneko araudian ezarritako beste arauen batean epe luzeagoa ematen ez bada. Epea zenbatuko da deialdi egokia argitaratzen denetik aurrera, baldin eta deialdiak bere ondoreak geroagoko egun baterako atzeratzen ez baditu.

Diru-laguntza emango da aurreko diru-laguntzak behar bezala justifikatuta daudenean, ez lehenago.

25. Artikulua.- Ebazpena jakinaraztea

Ebazpenaren jakinarazpena administrazio prozedura erkidearen araudiaren arabera egingo da 10 laneguneko epean, jakinarazpena emango den egunetik aurrera zenbatuta; legearen arabera bidezko errekurtsioak zein diren agertuko da bertan.

Ebazpena emateko epea amaitzen bada jakinarazpena egin gabe, eskabidea administrazio isiltasunaren bidez onartu ez dela ulertzeko legitimatuta egongo dira interesdunak, zertarako-eta egokitzat hartzen dituzten errekurtsio administratiboak edo judizialak jartzeko.

26. Artikulua.- Eskabideak berriro egitea

Diru-laguntzaren xedea eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, eta ebazpen-proposameneko diru-laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskarian agertzen dena baino txikiagoa bada, onuradunari bere eskabidea berriro egiteko eskatu ahal izango zaio, oinarri arautzaileetan hala aurreikusita egonez gero, konpromiso eta baldintzak eman daitekeen diru-laguntzari doitzeko.

Kide anitzeko organoak eskabidea onartzen duenean, egindako tramite guztiekin bidaliko zaio organo eskudunari, horrek ebazpena eman dezan.

Edonola ere, eskabideak berriro egitean jaramon egin beharko zaie diru-laguntzaren xede, baldintza eta helburuei, bai eta eskabideei buruz ezarritako balorazio-irizpideei.

III. KAPITULUA.- ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURAK

27. Artikulua.- Zuzenean ematea

Diruz lagundu beharreko jardueraren izaeragatik edo jarduera hori egin behar duen pertsonaren edo erakundearen ezaugarriengatik lehia publikoa sustatu ezin bada, diru-laguntzak emango dira horiek emateko eskumena duen organoaren ebazpen edo erabaki arrazoituaren bidez. Bertan adieraziko da lehia-araubideko deialdia zergatik kendu den, bai eta emandako fondoan aplikazioa zein modutan justifikatu behar den. Edonola ere, espediente egokia tramitatuko da.

Gastuaren onespenerari datzekion izapidea behar du espedienteak betiere, behar bezala arrazoituta, kontabilitateari eta aurrekontuei buruzko indarreko araudiarekin bat etorritz, eta bereziki Aurrekontua Betearazteko Udal Arauan ezarritako izapideak direla-eta.

Onuraduna Aurrekontu Orokorrean aurreikusita dagoenean, diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna hitzarmenak izango dira. Dena dela, araudi arautzaileak horri buruz ezartzen duena aplikatu ahal izango da.

Hitzarmenetan gutxienez ondoko hauek agertu beharko dira:

- a) Diru-laguntzaren xedearen definizioa. Adierazi beharko da diru-laguntza bereziak direla eta onura publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko helburua egiaztatzen duten arrazoiak daudela, baita deialdi publikoa egiteko zailtasuna justifikatzen dutenak ere.
- b) Aplikatu daitekeen araubide juridikoa.
- c) Onuradunak eta laguntzaren modalitateak.
- d) Emateko prozedura, eta onuradunek eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileek jasotako diru-laguntzei aplikatu beharreko justifikazioaren araubidea.

IV. TITULUA.- DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOA KUDEATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA.- ORDAINKETA AURRERATUAK ETA KONTURAKO ORDAINKETAK

28. Artikulua.- Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak

Oinarri berezi arautzaileetan aurreikusi ahal izango da ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egitea, onuradunek aurkeztu behar dituzten bermeak ezarrita, hala badagokio.

II. KAPITULUA.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK ONURADUNEK AZPIKONTRATATZEA

29. Artikulua.-Diruz lagundutako jarduerak onuradunek azpikontratatzea

Diru-laguntza jasoko duen jarduera osorik edo zatika egiteko onuradunak beste batzuekin hitzartzen duen kontratuari deritzo azpikontratazioa. Definizio horretatik kanpo gelditzen da diruz lagundutako jardueraren onuradunak berak jarduera egiteari datzekion gastuen kontratazioa (langile propioak kontratatzea, jardueraren ohiko funtzionamenduaren gastuak, materiala erostea, etab.).

Onuradunak kasu batean baino ezin izango du azpikontratatu diruz lagundutako jarduera, osorik edo zati batean: diru-laguntza arautzen duen araudiak hala aurreikusten duenean. Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatzeko duen jarduerak ezin izango du gainditu diru-laguntza arautzen duten oinarrietan finkatutako ehunekoa. Aurreikuspen hori ez bada agertzen, onuradunak gehienez ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %50 azpikontratatu ahal izango du.

Diruz lagundutako jardueraren kostua handituta ere horren edukari balio erantsirik ekartzen ez dioten beste batzuk ezin izango dira azpikontratatu.

Udalak edo, hala denean, haren erakunde autonomoek alde aurretik eta beren beregi baimendu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren zati bat beste batzuen bitartez kontratatzeko hitzartutako kontratuak; kontratu horiek idatziz gauzatu beharko dira, honako egoera bi hauek batera gertatzen direnean:

- a) Hitzartutako jarduera diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa denean.
- b) Azpikontratatu beharreko zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa denean.

Ezin izango da kontratua zatikatu atal honetan ezarritako betekizunetatik ihes egiteko.

Kontratistek onuradunarekikoak baino ez dituzte bete behar, eta onuradunak diruz lagundutako jarduera burutzearen erantzukizun osoa bereganatuko du administrazioaren aurrean. Hala eta guztiz ere, kontratistek ordenantza honetako 43. artikuluan ezarritako lankidetzaren bete behar dute, legeen eta arauen arabera azpikontratazio mugak betetzen direla behar bezala egiaztatzea ahal izateko.

Onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako jardueraren burutzapen osoa edo zatizkoa ondoko hauekin:

- a) Onuraduna edo erakunde laguntzailea izateko ordenantza honen 12. artikulua honen edo legearen debekuren batean erori diren pertsonekin edo erakundeekin.
- b) Kontratazioa izan duen jarduera egiteko bestelako diru-laguntzak jaso dituzten pertsonekin edo erakundeekin.
- c) Bitartekariak edo aholkulariak, zeinetan ordainketak eragiketaren guztizko kostuaren ehuneko gisa zehazten baitira, kasu batean izan ezik: ordainketa hori egiaztatuta ez badago lan merkatuaren edo emandako zerbitzuen balioari dagokionez.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsonak edo erakundeak, honako egoerak gertatzen direnean salbu:
 - 1. Kontratazioa merkatuaren ohiko baldintzen arabera egitean.
 - 2. Diru-laguntza ematen duen organoaren aurretiazko baimena lortzean oinarri arautzaileetan finkatutakoaren arabera.
- e) Deialdi edo egitarau berean laguntza edo diru-laguntza eskatzen duten pertsonak edo erakundeak, eskakizunak ez betetzeagatik edo nahikoa balorazioa ez lortzeagatik diru-laguntzarik jaso ez dutenak.

30. Artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, baldin eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako epean egingo badira. Diruz lagundutako gastuen eskurapen-kostuak ezin izango du inola ere merkatu-balioa gainditu.

Diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan berariaz kontrakoa xedatu ezean, egindako gastutzat joko da diru-laguntza arautzen duen araudian zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena.

Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada obra betearazteko kostuaren kasuan, edo 12.000 eurotik gorakoa ekipoko ondasunen hornidurako edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresek emandako zerbitzuen kasuan, onuradunak gutxienez hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa kontratatu baino lehen, baldin eta, diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarriengatik, zerbitzua hornitzen edo ematen duten erakunde nahikoak badaude merkatuan edo gastua diru-laguntzaren eskabidea egin baino lehen egin bada.

Aurkeztutako eskaintzak aukeratuko dira eraginkortasun eta ekonomi irizpideen arabera; proposamenik onuragarriena aukeratzen ez bada, egindako aukera beren beregi egiaztatu beharko da memoria batean. Aurkeztutako eskaintza guztiak agertu beharko dira justifikazioan edo, bestela, diru-laguntzaren eskabidean.

Aurkeztutako eskaintzen aukera eta aukeraren egiaztapena, hala denean, 32. artikuluan aipatzen den justifikazio-kontuan agertu beharko dira.

Inbentarioan sar daitezkeen ondasunak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzen direnean, ondoko arauak bete beharko dira:

- a) Oinarri arautzaileetan ezarriko da onuradunak zein epetan erabili beharko dituen ondasunak, diru-laguntzaren xede zehatzerako. Epe hori gutxienez bost urtekoa izan beharko da, ondasunak erregistro publikoan sartzeko modukoak badira, eta bi urtekoa gainontzeko ondasunak badira.

Ondasunak erregistro publikoan sartzeko modukoak badira hori adierazi beharko da eskrituran. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ere adierazi beharko da, eta inguruabar horiek biak inskribatu beharko dira erregistro publiko egokian.

- b) Aurreko paragrafoko diru-laguntzaren helburuaren betebeharra bete ezean, ondasuna itzuli beharko da, besterentze edo karga bidez; horrenbestez, itzulketa ordaintzeari lotuko zaio ondasuna, ondasunen jabea edozein delarik ere, kasu honetan izan ezik: erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat denean edo ondasunak titulu zuzen bidez eta fede onez jendearentzako merkataritza- edo industria-establezimenduan erosi zirela egiaztatzen denean, erregistroan ezin sar daitezkeen ondasun higigarrien kasuan.

Honako kasuetan inola ere ezin eman daitezke diru-laguntzak:

- a) Bankuko kontuen interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta zehapen administratiboak eta penalak.
- c) Prozedura judizialeko gastuak.
- d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta zeharkako zergak, berreskuratutako edo konpentsa daitezkeenean.

III. KAPITULUA.- DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

I. ATALA.- DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

31. Artikulua.- Justifikatzeko betebeharra

Aurrekontu Orokorren pentzurako diru-laguntzen onuradunek betiere justifikatu beharko dute jasotako fondoan aplikazioa, behar izanez gero eta zerbitzu tekniko eskudunek eskatzen dutenean. Horretarako gehienez ere hiru hilabeteko epea izango dute, proiektua edo diruz laguntzen den jarduera egiteko hasieran aurreikusitako egunetik aurrera zenbatuta.

Proiektua edo jarduera adierazitako egunean amaitzen ez bada, onuradunak idatziz eskatu beharko du justifikazio-epea luzatzea, epe horren azken eguna adierazita.

32. Artikulua.- Proiektua egin dela egiaztatze modua

Ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektua edo jarduera egin dela egiaztatuko da modu hauetan:

- a) Proiektu edo jarduera osoa aurrekontuaren arabera egin izanari buruzko memoria xehatua. Berariaz adierazi beharko dira lortutako emaitzak, eskabidearekin proposatutako jarraipen eta autoebaluazio sistemen aplikaziotik kenduta.
- b) Diru-laguntza-jaso duenak emandako ziurtagiria, diru-laguntzaren xedea aurkeztutako proiektuaren arabera bete dela egiaztatzeko.
- c) Halaber, diru-laguntza jaso dutenek egindako gastuak justifikatzeko kontu bat aurkeztu beharko dute. Oinarri arautzaileetan besterik adierazi ezean, gastuak ondoko betekizun hauei egokituko zaizkie:
 - Aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren frogagiriak edo diru-laguntza publikoaren helburua bete izana egiaztatzen duen eta balio juridikoa duen edozein agiri bilduko da.
 - Diruz lagundutako eta egindako jardueri buruzko adierazpena eta diru-laguntzon kostua agertuko dira, egindako gastu bakoitzaren banakapena eta guzti.
 - Obra, ondasun eta zerbitzuetako gastu orokorrak justifikatzeko, faktura egokiak aurkeztuko dira. Langileen, dieten, etab.en gastuak nominen bidez justifikatuko dira. Eta diruz lagun daitezkeen gainontzeko gastuak fakturen bidez, edo merkataritzako trafiko juridikoan balio duten edo administrazio eraginkortasuna duten beste frogagiri baliokideen bidez.

Gastuak faktura elektronikoen bidez ere egiaztatu ahal izango dira, baldin eta faktura horiek zerga-arloan onartzeko betekizun guztiak betetzen badituzte.

- Diruz lagundutako jarduerak diru-laguntzarekin bakarrik ez funts propioen edo bestelako diru-laguntzen edo baliabideen bidez ere finantzatzen direnean, frogagirian egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa eta jatorria, bai eta lagundutako jardueri aplikatu zaizkiela.

- Ondasun higiezinak erosiz gero, artikulua honetan ezarritako frogagiriez gain aurkeztu beharko da behar bezala kreditatuta eta erregistro ofizial egokian inskribatua dagoen tasatzaile independente batean egiaztatzea.

Justifikatzeko kontuaren forma eta kontua emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarri egokietan zehaztuko dira.

Diru-laguntzaren hartzailearen egoera jakin bati aurre egiteko emandako diru-laguntzen kasuan, zuzenbidean onartuta dagoen edozein bidez egindako egiaztapena baizik ez da behar izango diru-laguntza eman baino lehen. Dena dela, diru-laguntzak badirela egiaztatzeke ezar daitezkeen kontrolak egin ahal izango dira.

Diru-laguntzaren egiaztapena aurkeztu beharra legean edo ordenantza honetan ezarritakoaren arabera ez betetzeak edo diru-laguntza behar beste ez egiaztatzeak diru-laguntza itzultzea dakar berekin, ordenantza honen 39. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

33. Artikulua.- Fakturen betekizunak

Gastuak fakturen eta frogagiri baliokideen gainerako dokumentuen bidez kreditatuko dira, merkataritzako trafiko juridikoan balio dutenak edo administrazio eraginkortasuna dutenak. Fakturak Aurrekontua Betearazteko Arauan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Jatorrizko agiriak edo diru-laguntza kudeatzen duen Sailaren dilijentzia eginda duten fotokopiak aurkeztu beharko dira; jatorrizko agiriak interesdunei ahalik eta lasterren itzuliko zaizkie. Fakturatan adieraziko da jasotako diru-laguntzaren frogagiri gisa erabili direla. Unean uneko deialdiko diru-laguntza justifikatzeko erabili dela zehaztuko da.

Edonola ere, diru-laguntza zein ekitalditan eman den, horren data izan beharko dute fakturak.

34. Artikulua.- Beste egiaztagiri batzuk

Emandako diru-laguntza behar bezala justifikatzearen ondoretarako, jarduerak eragindako dokumentazioaren eta publizitatearen aleak aurkeztu ahal izango dira.

Gastua hobeto justifikatzeko eska daitekeen beste edozein dokumentazio.

II. ATALA.- JUSTIFIKATZEKO PROZEDURA

35. Artikulua.- Zerbitzu teknikoaren txostena

Frogagiria idatziz zuzenduko zaio gaiaren arabera eskumena duen udalaren edo erakunde autonomoaren sailari, atalari edo udal bulegoari, aurreko artikuluan agertzen diren justifikazio-kontua eta frogagiriak erantsita.

Dokumentazio egokia jasotakoan, diru-laguntza kudeatzen duen zinegotziagoaren mendeko zerbitzuek diru-laguntzaren xedeak betetzeari eta egindako gastuen egokitasunari buruzko txostena egingo dute. Horrenbestez, proposamen egokia egingo dute, aurkeztutako frogagiriak edo dokumentazioa ontzat emateko, edo hala badagokio, onuradunak jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat itzultzea proposatzeko.

Diru-laguntzaren justifikazioari buruzko jarduerak Kontu-hartzailetzara bidaliko dira, hark fiskaliza ditzan.

Alkatetzak diru-laguntza kudeatzen duen Sailaren proposamenarekin bat etorri emango du ebazpena, salbu eta ebazpen arrazoituaren bidez haren irizpidea ez betetzea erabakitzen badu.

Onuradunari ez zaio beste diru-laguntzarik emango lehenago emandako diru-laguntzen frogagiria aurkeztu ezik.

Dagozkion txostenak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 83. artikuluan ezarritako ebakuazio erregimenari eta epeei jarraituz, egingo dira.

36. Artikulua.- Balioak egiaztatzea

Galdakaoko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diruz lagundutako gastuen merkatu-balioa egiaztatu ahal izango dute, ondoko baliabide hauetako baten edo batzuen bidez:

- a) Merkatuko batezbesteko prezioak.
- b) Estatuko eta nazioarteko merkatuetako kotizazioak.
- c) Zergen arloko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentziazat hartuta zenbatestea.
- d) Administrazio perituen irizpena.
- e) Perituaren tasazio kontrajarria.
- f) Zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide.

Egiaztatutako balioa diru-laguntza kalkulatzeko oinarri gisa hartu ahal izango da, eta diru-laguntzaren likidazioa barnean hartzen duen egintzaren ebazpenarekin batera jakinaraziko da, behar bezala arrazoituta eta erabilitako baliabide eta irizpideak adierazita.

Edonola ere, onuradunak perituaren tasazio kontrajarria sustatu ahal izango du artikuluko honetan adierazitako balioen egiaztapeneko gainontzeko prozedurak zuzentzeko, prozeduraren ebazpenaren aurka lehenengoz jar daitekeen errekurtsioaren epearen barruan, baldin eta prozedura horretan Administrazioak aurreko idatz-zatian aurreikusitako ahalmena gauzatzen badu.

Perituaren tasazio kontrajarriaren eskabidea aurkezten bada, ebatzitako prozeduraren betearazpena eta haren aurkako errekurtsioa jartzeko epea etengo dira.

Udal Administrazioak egiaztatutako balioaren eta onuradunaren perituak egindako tasazioaren arteko aldea 120.000 eurotik eta Administrazioak egiaztatutako balioaren %10etik beherakoa bada, onuradunaren perituak egindako tasazioa diru-laguntza kalkulatzeko oinarri gisa erabili ahal izango da. Bestela, hirugarren peritu bat izendatu beharko da arauetan ezartzen den moduan.

Onuradunak ordainduko ditu berak izendatutako perituaren ordainsariak. Hirugarren perituak egindako tasazioa onuradunak justifikatutako balioa baino txikiagoa bada, perituaren jardueraren gastu guztiak onuradunak ordainduko ditu; aldiz, handiagoa bada, gastuak Administrazioaren konturakoak izango dira.

Hirugarren perituaren balorazioa diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarri gisa erabiliko da.

V. TITULUA.- DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

37. Artikulua. Diru-laguntza emateko ebazpenaren baliogabetasuna.

Hauexek dira emakidaren ebazpena baliorik gabe uzteko arrazoiak:

- a) Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1. artikuluan agertzen direnak.
- b) Krediturik eza edo nahikoa krediturik ez izatea, aurrekontuei buruzko indarreko araudiarekin bat etorritz.

Diru-laguntzaren emakida baliorik gabe uzteko arrazoiak izango dira antolamendu juridikoaren gainerako arau-hausteetan erortzen direnak, bereziki diru-laguntzen araudiaren eta ordenantzaren arau-hausteetan erortzen direnak, aipatutako 30/1992 Legearen 63. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Baldin eta aurreko bi ataletan ezarritako deuseztasun edo baliogabetasun zioetako bat ikusten bada, organo emaileak ofiziozko berrikuspen-espedientea has dezake edo, hala denean, diru-laguntza emateko egintzaren kaltegarritasuna adieraziko du, baita ondorengo inpugnazioa ere, aipatutako 30/1992 Legearen 102 eta 103. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrita.

Diru-laguntzaren emakidaren deuseztasun edo baliogabetasunaren adierazpen administratibo edo judizial irmoak berekin dakar jasotako kopuruak itzultzeko beharra.

Ez da bidezkoa izango ofiziozko berrikuspenaren espedientea hastea hurrengo artikuluan ezarritako zioetako bat gertatzen denean.

38. Artikulua.- Diru-laguntzak itzultzeko arrazoiak

Ondorengo kasuetan, bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea eta berandutze-interesak eskatzea diru-laguntza ordaintzeko unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte:

- a) Eskatutako baldintzak edo diru-laguntza ematea galaraziko zuten baldintzak faltsututa edo ezkutututa lortzen diren diru-laguntzak.
- b) Helburua, jarduera edo proiektua osorik edo horien zati bat ez betetzea edo diru-laguntza emateko oinarria den jarrera ez hartzea.
- c) Diru-laguntzaren frogagiria aurkezteko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez frogatzea, 38/2003 Legearen 30. artikuluan eta ordenantza honen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- d) Jardueraren finantzabideak ezagutarazteko betebeharra ez betetzea, hain zuzen ere ordenantza honetako 9. artikuluen h) atalean eta 14. artikuluan ezarritako betebeharra.
- e) Ordenantza honetan eta legean ezarritako egiaztapen eta kontrol finantzarioko jarduketan kontra agertzea, aitzakiak jartzea, berau eragozteko edo egin nahi ez izatea, horren ondorioz jasotako funtsak nola erabili diren egiaztatze modurik ez baldin badago edo diruz lagundutako jardueren helburua eta egoera eta erregulartasuna bete egiten ez badira, edo bestela Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edo estatuko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo dirua jasotzen badira.

- f) Udalak edo haren erakunde autonomoek erakunde laguntzaileei edo onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, baita azken horiek diru-laguntza ematean bere gain hartutako konpromisoak ez betetzea ere, honako hauetan eragina duten edo honakoei buruzkoak diren konpromisoak: helburuak lortzeko moduak, jarduera egitea, proiektua betearaztea edo diru-laguntza emateko oinarria den jarrera hartzea.
- g) Udalak edo haren erakunde autonomoek erakunde laguntzaileei edo onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea, baita azken horiek diru-laguntza ematean bere gain hartutako konpromisoak –eta aurrekoak ez bezalakoak direnak– ez betetzea ere, baldin eta ez betetze horrengatik jasotako funtsei eman zaien erabilera, helburua, diruz lagundutako jardueren egoera eta erregulartasuna egiaztatzerik ez badago, edo Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edo estatuko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo dirua jasotzen badira.
- h) Diru-laguntza itzultzea dakarren erabaki bat hartzea Europar Batasunaren Itunaren 87, 88 eta 89. artikuluetan ezarritakoa dela bide.
- i) Diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritako gainerako kasu guztietan.

Baldin eta onuraduna edo, hala denean, erakunde laguntzailea helburua osorik betetzeko oso gertu badago eta haien konpromisoak betetzeko jarduketa garbia egin dutela egiaztatzen badute, erantzukizunaren mailakatze-irizpideak aplikatuko dira, zertarako-eta itzuli beharreko zenbatekoa finkatzeko; irizpide horiek proportzionaltasun printzipioaren arabera izango dira.

Era berean, diru-laguntzen zenbatekoa diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa bada, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, bidezkoa izango da jardueraren kostuaren gainean lortutako gaindikina itzultzea, baita dagokion berandutze- interesa eskatzea.

39. Artikulua.- Itzuli beharreko kredituen eta itzulketa eskatzeko prozeduren izaera.

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Araudian ezarritakoa aplikatu beharko da.

Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze- interesa diruaren legezko interesa izango da gehi %25, Estatuko Aurrekontu Nagusien Legean bestelako interesik ezarri ezik.

Itzulketa egiteko betebeharra finkatzeko prozedura administratiokoa izango da eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VI. Tituluan ezarritako izapideen bidez gauzatu da; nolahi ere, entzunaldia bermatuko zaie interesdunei.

Prozedurari buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da hasteko erabakia hartzen denetik, betiere administrazio prozedura erkideari buruzko legedian ezarritako epeak luzatzeko edo prozedura eteteko gertatu daitezkeen egoerei kalterik egin gabe. Epea igarota, prozeduraren iraungipena gertatuko da, preskribatzeko epealdiaren barruan beste prozedura bat hasteko aukerari kalterik egin barik.

VI. TITULUA.- DIRU-LAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLA

40. Artikulua.- Finantza-kontrolaren araubide orokorra

Diru-laguntzen finantza kontrola udalaren esku-hartzaitzaren bidez egingo da onuradunei dagokienez eta, hala denean, erakunde laguntzaileei dagokienez, udal administrazioaren diru-laguntzak direla-eta, kontrola egiten duten langileen ahalmen eta betebeharrekin, kontrol-jardueren prozedura eta dokumentazioarekin eta txostenen ondoreekin bat etorriz, 38/2003 Legearen 47, 48, 49, 50 eta 51. artikuluetan aurreikusita dagoen bezala.

Diru-laguntzen finantza kontrolaren helburua hauexek egiaztatzea izango da:

- a) Onuradunak diru-laguntzak modu egokian eta zuzen lortu izana.
- b) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek diru-laguntza kudeatzeko eta aplikatzeko betebeharrak bete izana.
- c) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek diru-laguntzen egiaztapena modu egokian eta zuzen egin izana.
- d) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako frogagiriaren arabera diru-laguntzarekin finantzatu diren eragiketen egoera eta erregulartasuna.
- e) Diruz lagundutako jardueren finantzaketa egokia eta zuzena, legean eta ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
- f) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek administrazioari adierazi gabeko eta diruz lagundutako jardueren finantzaketan, diru-laguntza modu egokian eta zuzenean lortzeko, erabiltzeko edo egiaztatzeko prozesuan eragina izan dezaketen gertaerak edo egoerak izatea, baita diruz lagundutako eragiketen egoeran eta erregulartasunean eragina izan dezaketenak ere.

Hauexek egin daitezke finantza kontrolean:

- a) Onuradunen eta erakunde laguntzaileen kontabilitate erregistroak, finantza kontuak edo egoerak eta horien euskarri den dokumentazioa aztertzea.
- b) Emandako diru-laguntzekin lotutako edo horietan eragina izan dezaketen banakako eragiketa zehatzak aztertzea.
- c) Emandako diru-laguntzekin lotutako edo horietan eragina izan dezaketen alderdi batzuetako zenbait alderdi partzial eta zehatz egiaztatzea.
- d) Finantzatutako inbertsioen egiaztapen materiala.
- e) Diru-laguntzaren araudian eta, hala denean, emakidari buruzko ebazpenean ezarritakoaren arabera egin beharreko kontroleko jarduketa zehatzak.
- f) Diruz lagundutako jardueren ezaugarri bereziak aintzat hartzeko beharrezkoak diren gainerako egiaztapen guztiak.

Finantza kontrola onuradunekin lotura edo zerikusia duten pertsona fisikoei edo juridikoei ere aplika dakieke, baita helburuak lortzeko, jarduerak egiteko, proiektuak betearazteko edo jarrerak hartzeko interesa izan dezakeen beste edozein pertsonari ere.

41. Artikulua.- Erkidegoko funtsekin osorik edo zati batean finantzatutako diru-laguntzen eta laguntzen finantza-kontrola

Erkidegoko funtsen pentzura osorik edo zati batean finantzatutako diru-laguntzen eta laguntzen kasuan, udal esku-hartzaitzak laguntasuna emango dio

Estatuaren Esku-hartzailtza Nagusiari, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 45. artikuluan ezarritako helburuetarako.

42. Artikulua.- Lagundu beharra.

Onuradunek, erakunde laguntzaileek eta diru-laguntzaren helburuarekin edo horren egiaztapenarekin lotuta dauden beste batzuek laguntasuna eman beharko diote Udal Esku-hartzailtzari, baita kontrolerako bere eginkizunak betetzeko eskatzen den dokumentazio guztia eman ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango ditu Udal Esku-hartzailtzak:

- a) Egiaztatu beharreko dokumentazioa askatasunez eskuratu ahal izatea, euskarri informatikoko artxibategiak eta programak barne.
- b) Negozioetan eta gainerako establezimenduetan edo diruz lagundutako jarduera egiten den tokietan edo diru-laguntzaren pentzura finantzatutako eragiketen egoera eta erregulartasuna egiaztatzeko tokietan askatasunez sartu ahal izatea.
- c) Fakturen, agiri baliokideen edo horien ordezkoen kopia lortzea eta gordetzea, baita diru-laguntza modu okerrean lortu edo helburu okerra eman izanarekin lotutako eragiketei buruzko beste edozein agiri ere.
- d) Finantza erakundeetako bankuko kontuen informazioa askatasunez lortu ahal izatea, zeinetan diru-laguntzaren kobrantza egin baita edo zeinen pentzura egin izan baitira funtsen baliatzeak.

Betebehar hori betetzeari uko egitea, kontrako agerralditzat, aitzakiatzat edo ukapentzat hartuko da Ordenantza honen 38. artikuluan ezarritako ondoretarako, bidezkoak izan litezkeen zehapenei kalterik egin barik.

VII. TITULUA.- DIRU-LAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

I. KAPITULUA- ERANTZUKIZUNA

43. Artikulua. Arau-haustearen kontzeptua

Diru-laguntzen arloko administrazioko arau-hausteak dira ordenantza honetan eta legean tipifikatutako ekintzak eta ez-egiteak, eta zabarkeria huts gisa ere zigor daitezke.

44. Artikulua.- Arau-hausteen erantzuleak

Administrazio arau-hausteen erantzuleak izango dira egiteagatik edo ez-egiteagatik ordenantza honetan arau-hauste gisa tipifikatutako kasuetan dauden pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, baita nortasun juridikorik gabeko erakundeak (pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte publikoak edo pribatuak, ondasunen elkarteak edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, proiektuak eta jarduerak egin edo jarrera jakin bat har dezakeen edozein ekonomi edo ondare unitate banandu, edo laguntza edo diru-laguntza emateko egoeran dauden pertsona guztiak) ere. Hona hemen pertsona horiek:

- a) Diru-laguntzen onuradunak, baita pertsona juridikoetako edo nortasun juridikorik gabeko erakundeetako kideak ere, baldin eta diru-laguntza emateko oinarri gisa hartutako jarduera guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen badute.

- b) Erakunde laguntzaileak.
- c) Jarduteko ahalmenik ez duten eta diru-laguntzen onuradunak diren pertsonen legezko ordezkaria.
- d) Diru-laguntzaren helburuarekin edo egiaztapenarekin lotura duten pertsonak edo erakundeak, laguntasuna eta eskatzen zaien dokumentazio guztia eman beharko dituztenak ordenantza honen 42. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Diruzko zehapenaren erantzule solidarioak izango dira ordenantza honetako 8. artikuluan aipatzen diren erakundeetako kideak, partaideak edo titularkideak haien partaidetzen proportzioan, noiz-eta ondasunen elkarrekin edo edozein eratako ekonomi unitatea edo ondare banatua direnean.

Diruzko zehapenaren erantzule subsidiarioak izango dira merkataritza sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, baldin eta urratutako betebeharra betetzeko haiei dagozkien beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, urratutako betebeharra posible egiten ez duten erabakiak hartzen badituzte edo haien menpekoei urratzeak onartzen badituzte, aplikatzekoak diren legetan eta estatutuetan ezarritako lege xedapenekin bat etorrituz.

Bazkideen, partaideen edo titularkideen ondare erantzukizuna mugatuta izanda sozietateak edo erakundeak desegin eta likidatzen direnean, ordaindu gabeko zehapenak horiei eskualdatuko zaizkie, eta pertsona horiek sorospidezko erantzuleak izango dira haiei esleitutako edo esleitu beharko zitzaiekeen kitapenaren kuotaren mugaraino. Legearen arabera erantzukizuna mugatuta ez duten sozietateak edo erakundeak badira, bazkideei, partaideei edo titularkideei eskualdatuko zaizkie zehapenak, eta zehapena betetzeko erantzule solidarioak izango dira.

45. Artikulua.- Erantzukizunaren salbuespena

Tipifikatutako urratzeek edo ez-egiteek ez dute diru-laguntzen arloko administrazioari arau-hausteengatik erantzukizunik eragingo honako kasu hauetan:

- a) Jarduteko ahalmenik ez dutenek egiten dituztenean.
- b) Ezinbestekoetan.
- c) Taldearen erabaki baten ondorio direnean, urratzea edo ez-egitea hartu zen bilerara joan ez zirenentzat edo horretan botoa bereizia dutenentzat.

46. Artikulua.- Antolamendu juridikzional eta penaleko jarduketak

Delitua izan deneko jardueren kasuan, Udalak erruaren lekukotza pasatuko dio juridikzio eskudunari eta zehapen prozedura jarraitzeari uko egingo dio epaileak epai irmoa eman arte, jarduketak artxibatu arte edo Ministerio Fiskalak espedientea itzuli arte.

Epaileak zigorra ezartzen badu, salbuetsita geldituko da gertaera berengatik administrazio zehapena ezartzea.

Baldin deliturik ez dagoela jo bada, Administrazioak zehapen espedientea hasi edo jarraituko du auzitegiek frogatutzat jotzen dituzten egitateetan oinarrituz.

II. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEEN SAILKAPENA

47. Artikulua.- Arau-hauste arinak

Arau-hauste arina izango da ordenantza honetan eta diru-laguntzen oinarri arautzaileetan bildutako betebeharrak ez betetzea, baldin eta arau-hauste larria edo larri-larria ez bada eta zehapena mailakatzeko elementu gisa hartzen ez bada. Hain zuzen ere, urratze arinak dira honako jokabideok:

- a) Epetik kanpora aurkeztea jasotako funtsei emandako aplikazioari buruzko justifikazio-kontuak.
- b) Zehatzak ez diren edo osorik ez dauden justifikazio-kontuak aurkeztea.
- c) Artikulu honetako gainerako paragrafoetan ezarri gabe egonik diru-laguntzaren emakidaren ondorioz bereganatutako betebeharrak ez betetzea, arauetan ezarritakoaren arabera.
- d) Bereziki kontabilitate eta erregistroko betebeharrak ez betetzea:
 1. Eragiketa baten edo gehiagoren zehaztasunik eza, edo eragiketa ez egitea kontabilitatean eta legez eskatzen diren erregistroetan.
 2. Kontabilitatea, legez ezarritako erregistroak, horien euskarri diren informatika artxibategiak eta programak nahiz erabilitako kodifikazio sistemak ez eramateko edo gordetzeko betebeharra ez betetzea.
 3. Jarduera eta ekitaldi ekonomiko bat berari dagozkielarik, enpresaren benetako egoera zein den jakitea eragozten duten kontabilitate ezberdinak eramatea.
 4. Kontuak ezarritako helburuetarako ez beste xede baterako erabiltzea horren izaeraren arabera, baldin eta diruz lagundutako jardueren egoera egiaztatzea zailtzen badute.
- e) Frogagiriak edo agiri baliokideak gordetzeko betebeharra ez betetzea.
- f) Erakunde laguntzaileek artikulu honetako gainerako ataletan beren beregi ezarritak ez dauden baina legean ezarritak dauden betebeharrak ez betetzea.
- g) Finantza kontrolaren jarduketan kontra agertzea, eragozteak, aitzakiak jartzea edo uko egitea.

Horrelako egoerak gertatuko dira diru-laguntzen arloko administrazio arau-hausteen erantzuleak, ondore horretarako behar bezalako jakinarazpena izanik, udaleko funtzionarioek finantza kontrola burutzeko jarduketa luzatu, galarazi edo eragozteko jarduketak egiten dituenean.

Besteak beste, hauexek dira jarduketan kontra agertzea, eragozteak, aitzakiak jartzea edo uko egitea:

1. Hauek ez aurkeztea edo ez ematea: agirien azterketa, txosten, aurrekari, liburu, erregistro, fitxategi, frogagiri, kontabilitate-idazpenak, informatika fitxategi eta programak, sistema eragileak eta kontroleko sistemak, eta egiaztatu beharreko beste edozein datu.
2. Agindeiren bat aintzat ez hartzea.
3. Adierazitako tokian eta denboran ez agertzea, frogatutako arrazoiak eman ezik.
4. Negozioaren lokaletan eta frogak aztarnak dauden gainerako establezimenduetan eta tokietan sartzea edo egotea behar ez bezala galaraztea, edo baimenik ez ematea, zertarako-eta onuradunak edo

erakunde laguntzaileak jasotako funtsen edo diruz lagundutako jardueraren egoera eta erregulartasuna egiaztapena egiteko.

5. Finantza-kontrola egiten duten langileak derrigortzea.
- h) Lankidetzan aritu behar duten eta dokumentazioa emateko beharra duten pertsonak edo erakundeek betebeharrak horri muzin egitea, ondorioz onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzeko modurik ez badago.
 - i) Europar Batasunaren diru-laguntzen arloko araudian arau-hauste arin gisa tipifikatutako gainerako jarrerak.

48. Artikulua.- Arau-hauste larriak

Honako jokoerok dira arau-hauste larriak:

- a) Onuradunak helburu bererako bestelako diru-laguntzak, laguntza publikoak, sarrerak edo baliabideak jaso dituela ez jakinaraztea erakunde emaileari edo erakunde laguntzaileari.
- b) Ezarritako baldintzak ez betetzea, diru-laguntza emateko xedeak funtsean aldatuta.
- c) Frogagiria aurkezteko ezarritako epea igaro ondoren jasotako funtsei emandako erabilera egiaztatzen duen agiririk ez izatea.
- d) Erakunde laguntzailea izatera iristea diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betekizunak desitxuratuta edo erakunde laguntzailea izatera iristea galaraziko zuten eskakizunak ezkutatuta.
- e) Erakunde laguntzaileak ez betetzea diru-laguntzak emateko baldintzak edo eskakizunak eta horien eraginkortasuna egiaztatzeko betebeharra, baldin eta horren ondorioz itzulketa egiteko beharra gertatzen bada.
- f) Europar Batasunaren diru-laguntzen arloko araudian arau-hauste larri gisa tipifikatutako gainerako jarrerak.

49. artikulua.- Arau-hauste larri-larriak

Honako jokoerok dira arau-hauste larri-larriak:

- a) Laguntza edo diru-laguntzaren bat lortzea eskatutako baldintzak aizunduz, edo hura ematea eragotzi edo murriztuko zuten baldintzak aipatu gabe utziz.
- b) Jasotako kopuruen zati bat edo oso-osorik diru-laguntza emateko helburuetarako ez aplikatzea.
- c) Ordenantza honetako 9. artikulua c) atalean ezarritako kontrol jarduketan kontra agertzea, aitzakiak jartzea, eragozteko edo egin nahi ez izatea, horren ondorioz jasotako funtsak nola erabili diren egiaztatzeko modurik ez badago edo diruz lagundutako jardueren helburua eta egoera eta erregulartasuna betetzen ez badira, edo Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edo estatuko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuko diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo dirua jasotzen badira.
- d) Erakunde laguntzaileak diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera jasotako funtsak ez ematea onuradunei, hala egitea ezartzen denean.

- e) Europar Batasunak diru-laguntzen arloan emandako araudian zehapen larri-larri moduan tipifikatutako gainerako jarrerak.

III. KAPITULUA.- DIRU-LAGUNTZEN ARLOKO ZEHAPENAK

50. Artikulua.- Zehapen-motak

Diru-laguntzen arloko arau-haustek diru-zehapenak ezarrita zehatuko dira eta, bidezkoa denean, diruzkoak ez diren zehapenak jarrita.

Diru-isunak isun finkoaren edo proportzionalaren bidez jar daitezke. Diru-zehapen proportzionala behar ez den moduan lortu eta aplikatutako edo egiaztatu gabeko kopuruaren gainean aplikatuko da.

Isun finkoa gutxienez 75 eta gehienez 6.000 eurokoa izango da eta isun proportzionala eta behar bezala lortu eta aplikatu den edo egiaztatu ez den kopuruaren hirukoitza izan daiteke behar bezala aplikatu edo egiaztatu gabeko funtsei dagozkienak.

Itzulketa egiteko betebeharra ordenantza honetako V. Tituluan ezarri da, baina betebeharrak ez du loturarik diru-isunarekin, eta isun hori kobratzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko Herri Administrazioaren aurrekontuen indarreko araudian zuzenbide publikoko sarreretarako ezarritako araubide juridikoa aplikatu beharko da era berean.

Arau-hauste larrietan edo larri-larrietan ezar daitezkeen eta diruzkoak ez diren zehapenak honakoak izan daitezke:

- a) Herri administrazioetako edo bestelako erakunde publikoetako diru-laguntzak, laguntza publikoak eta abalak lortzeko aukera galtzea gehienez bost urteko epearen barruan.
- b) Lege honetan araututako diru-laguntzen gainean erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea gehienez bost urteko epearen barruan.
- c) Herri administrazioekin kontratatzea debekatuta izatea gehienez bost urteko epean.

51. Artikulua.- Arau-hauste arinen ziozko zehapenak

Arau-hauste arinen ziozko zehapenak:

- a) Arau-hauste arin bakoitzean, gutxienez 75 eta gehienez 900 euroko isuna jarriko da, aurreko atalean ezarritakoa izan ezik.
- b) Kasu bakoitzean, gutxienez 150 eta gehienez 6.000 euroko isuna jarriko da arau-hauste hauetan:
 1. Eragiketa baten edo gehiagoren zehaztasunik eza edo eragiketa ez egitea kontabilitatean eta legez eskatzen diren erregistroetan.
 2. Kontabilitatea edo legez ezarritako erregistroak eramateko betebeharra ez betetzea.
 3. Jarduera bakar batean enpresaren benetako egoera zein den jakitea eragozten duten kontabilitate ezberdinak eramatea.
 4. Kontuak ezarritako helburuetarako ez beste xede baterako erabiltzea horren izaeraren arabera, baldin eta diruz lagundutako jardueren egoera egiaztatzea zailtzen badute.

5. Kontroleko organoek eskatutako dokumentuak eta frogak ez aurkeztea edo froga eta dokumentu horiek erakutsi nahi ez izatea.
6. Erakunde laguntzaileek Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea.
7. Lankidetzan aritu behar duten eta dokumentazioa emateko beharra duten pertsonak edo erakundeek betebeharrak horri muzin egitea, ordenantza honetako 42. artikuluan ezarritako betebeharrak hain zuzen, baldin eta horren ondorioz onuradunak edo erakunde laguntzaileak emandako informazioa egiaztatzeko modurik ez badago.

52. Artikulua.- Arau-hauste larrien ziozko zehapenak

Arau-hauste larriak diru-isunarekin zehatuko dira, eta behar bezala lortu, aplikatu edo egiaztatu ez den kopuruaren bikoitzaren zati proportzionalan, edo erakunde laguntzaileen kasuan, behar bezala aplikatu edo egiaztatu gabeko funtsei dagozkienak.

Baldin eta arau-hauste larriari dagokion kalte ekonomikoa emandako diru-laguntzaren edo erakunde laguntzaileek jasotako kopuruaren ehuneko 50etik gorakoa edo 30.000 eurotik gorakoa bada, kontrola egiteko jarduketan kontra jartzen badira edo jarduketa hori eragozten badute edo iruzurrezko bideak erabiltzen badituzte, arau-hausleei honako zehapen hauek ere ezar dakizkieke:

1. Administrazioaren edo beste herri erakundearen diru-laguntzak, laguntza publikoak eta abalak lortzeko aukera galtzea gehienez hiru urteko epearen barruan.
2. Administrazioarekin edo beste herri erakunde batzuekin kontratuak egiteko debekua gehienez hiru urteko epearen barruan.
3. Ordenantza honetan araututako diru-laguntzen gainean erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea gehienez hiru urteko epearen barruan.

53. Artikulua.- Arau-hauste larri-larrien ziozko zehapenak

Arau-hauste larri-larriak diru-isunarekin zehatuko dira, eta behar bezala lortu, aplikatu edo egiaztatu ez den kopuruaren bikoitz edo hirukoitzaren zati proportzionalan, edo erakunde laguntzaileen kasuan, behar bezala aplikatu edo egiaztatu gabeko funtsei dagozkienak.

Hala ere, ez da zehatuko jasotako kopuruak diru-laguntza emateko helburuetarako ez aplikatzea, ezta erakunde laguntzaileek diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera jasotako funtsak onuradunei ez ematea ere, hala egitea ezartzen denean, noiz-eta arau-hausleek jasotako kopuruak eta berandutze-interesak itzultzen dituztenean aurretzeko agindeirik gabe.

Baldin eta, arau-hauste larri-larriari dagokion kalte ekonomikoa 30.000 eurotik gorakoa izanik, kontrola egiteko jarduketan kontra jartzen badira edo jarduketa hori eragozten badute edo iruzurrezko bideak erabiltzen badituzte, arau-hausleei honako zehapen hauek ere ezar dakizkieke:

1. Administrazioaren edo beste herri erakundearen diru-laguntzak, laguntza publikoak eta abalak lortzeko aukera galtzea gehienez bost urteko epearen barruan.
2. Administrazioarekin edo beste herri erakunde batzuekin kontratuak egiteko debekua gehienez bost urteko epearen barruan.

3. Lege honetan araututako diru-laguntzen gainean erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea gehienez bost urteko epearen barruan.

54. Artikulua.- Preskripzioa

Arau-hausteeak lau urteko epearen barruan preskribatuko dute, arau-haustea gertatzen den egunetik kontatzen hasita.

Arau-hausteeak lau urteko epearen barruan preskribatuko dute, zehapena ezartzeko ebazpena irmoa egin eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Arau-hausteeak preskribatzeko epea eten egingo da, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 132. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Ofizios aplikatuko da preskripzioa, baina interesdunak alegazioa jartzeko aukera izango du.

IV. KAPITULUA.- ZEHAPENEN ESKUMENA ETA PROZEDURA

55. Artikulua.- Zehapenak ezartzeko eskumena.

Alkatetzak erabaki eta ezarriko ditu diru-laguntzen arloko zehapenak –eskumen hori eskuordetzeko aukera dagoela–, alde zurretik diru-laguntzak eman dituen Atalak, Sailak edo Udal Bulegoak instrukzioak eginda. Horretarako, izapideak egiten dituen organoak egokitzen hartzen dituen txostenak eta Esku-hartzaitzaren laguntza eskatu ahal izango ditu.

56. Artikulua.- Zehapen prozedura.

Diru-laguntzen arloko zehapenak ezartzeko, administrazio espedientea egingo da; bertan, nolana ere, entzunaldia emango zaio interesdunari, eta honako hauetan ezarritakoarekin bat etorritz izapidetuko da: administrazio prozedura erkidearen arloko estatuko oinarritzko legedian eta EAEko Herri Administrazioetako zehapen-ahalmena betetzearan arloko Euskal Autonomia Erkidegoaren legedian ezarritakoa.

57. Artikulua.- Erantzukizunaren iraungipena.

Arau-hausteen ondoriozko erantzukizuna ordainketa eginda edo zehapena beteta iraungiko da, edo bestela arau-hausteeak preskribatzeagatik edo erantzulearen heriotzagatik, pertsona fisikoa bada.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria

Udalbatzak, Esku-hartzaitzarekin ados jarrita, auditoretzako enpresa pribatuen laguntza eska dezake diru-laguntzen finantza kontrola egiteko, aurrekontuei buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria

Ondareari buruzko legediek eraunduko dute ondasunen eta eskubideen doako emakida.

Hirugarren xedapen gehigarria

Berariazko araudiak eraenduko ditu udalaren erakunde autonomoek eta udalaren sozietate publikoek edo partaidetuek egiten dituzten kontraprestaziorik gabeko diru emakidak, Ordenantza honetan ezarritako kudeaketa-irizpideen arabera. Nolanahi ere, egingo dituzten ekarpenek lotura zuzena izan beharko dute jardueraren helburuarekin.

Laugarren xedapen gehigarria

Ordenantza honetan aurreikusi ez den guztirako bete beharko da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean, baterako arauetan nahiz arau osagarrietan eta lege hori garatzen duten xedapenetan ezarrita dagoena.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra

Prozedura hasi denean indarrean dagoen araudia aplikatuko zaie Ordenantza hau indarrean jartzean diru-laguntza emateko hasi diren prozedurei. Aurrekoari kalterik egin gabe, ordenantza honetako finantzak kontrolatzeko, itzultzeko eta berrikusteko egintzetako prozedura guztiak berauek indarrean sartzean aplikatu beharko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra

1. Indargabetuta gelditzen da udal diru-laguntzak emateko aurreko Ordenantza, 1994ko maiatzaren 31ko Osoko Bilkurak onetsi zuena.

2. Indargabetuta gelditzen dira lerrun bereko edo txikiagoko arau guztiak ordenantza honetan ezarritakoaren kontra edo kontraesanean dagoen guztiari dagokionez.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra

Ordenantza hau, behin betiko onartutakoan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuko da, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro eta gero indarrean jarriko da.

Hori da jakinarazi nahi dena, jendeak jakin dezan eta ondore egokiak izan ditzan.